

txintxarri



Eztarriz sano eta kantatzeko gogoz

Santa eskean atera ziren astelehenean Landaberri ikastolako haurrak eta herriko hainbat talde / 6-7

Aurrekontuak onartuta

PSE-EEren aldeko bozekin, eta EAJ, ADLOP eta PPren abstentzioarekin atera dira aurrera / 2

Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa hasiko da astelehenean, kontzientziak eragiteko xedearekin / 4

Hilabete erabakigarria Iparragirre eta Realarentzat: euskal derbia eta kopako finalerdia / 10

2 mó graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin
99€

**PARTEKA ITZAZU
ZUK NAHI DUZUNAREKIN**



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehen azerbitzu optikoetan

www.multiópticasgipuzkoa.com   



Asteheneroko ezohiko udalbatzarrean eztabaidatu eta onartu dute udal aurrekontuaren zirriborroa. TXINTXARRI

Udalbatzak onartu du aurtengo aurrekontua

PSE-EEren aldeko bozak jaso ditu, EH Bilduren kontrakoak, eta PP, EAJ eta Ahal Du Lasarte-Oria Puede taldeen abstentzioa. 28 milioi euro erabilgarri izango ditu 2019an udalak bere jardunerako, gastuetan aurreikusitakoa baino 6.000 euro gehiago

Maitane Aldanondo

Lasarte-Oriako Udalak badu 2019ko aurrekontu orokorra. Guztira, 28.162.013,79 euro izango ditu udalak bere jardunerako. Astehenen arratsaldean egindako ezohiko udalbatzarrean onartu zuten PSE-EEren aldeko zazpi boza, EH Bilduren kontrako lau, eta PP, EAJ eta Ahal Du Lasarte-Oria Puede (ADLOP) abstenituta.

Ia bi orduz luzatu zen bileran, EH Bilduk aurkeztutako osoko zuzenketa eta EAJren lau emendekin partzial eztabaidatu zituzten. Proposamena argudiatzerakoan, Pablo Barrio EH Bilduko bozeramailea oso kritikoa izan zen udal kudeaketarekin, "ezer egin" ez izana egotzita; baita aurrekontu proposamenarekin ere. Batetik,

maiatzeko hauteskundeetatik sortuko den udal gobernuaren jarduna "baldintzatuko" duelako; eta bestetik, herritarren interesei begirakoa ez delako. Horren adibide aipatu zuen herritarren parte hartze eredu, Barrioren ustez, "orri zuri batean nahi dutena idaztera" mugatzen dena. Era berean, Zarataraingo nahiz Zabaleta-Berriko udal orubeak

Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko saldu izana ere kritikatu zuen. "Jabetza publikoa interes pribatu espekulatiboen mesederako pribatizatu" delako, beste finantzazio bide batzuk bilatu beharrean.

Ordubetetik gora eztabaidatu zuten Barriok eta Jesus Zaballos alkateak. Entzundako argudioei erantzun zien udal gobernu buruak, baina aurrekontuen zirriborroa osatzeko, gainerako alderdiak ez bezala, EH Bildu kontuan hartu ez duela besterik ez zuen onartu. Hitz hartzeak amaituta, aldeko lau boz eta hamahiru ezezkoekin ezetsi egin zuten zuzenketa.

Halaber, EAJk aurkeztutako lau zuzenketa partzialak ere ezetsi zituzten. Batean, hiritarren bulego mugikorraren aurrekontua 6.000 euro murriztea eskatu zuten, baina bere horretan mantenduko dute. Beste batean, lurpeko zaborrontziak konpondu edo lur gainekoekin aldatzea, abian den azterketaren emaitzak ezagutzean erabakiko dute. Gainerako biek lotura zuten udal lanpostuen zerrenda eta pertsonalaren taularekin. Jeltzaleek egun behin behinekoa den aparejadore postua mantentzea nahi zuten, eta honen kontratua maiatzetik abendura arte luzatzea. Horren ordez, ordea, obra publikoetako ingeniari lanpostua sortuko dute.

PPk, EAJk eta ADLOPek euren abstentzioarekin aurrekontua onartzea ahalbidetu zuten. Erabakia argudiatzerakoan "arduraz" eta "lasarteoriatarren interesen alde" egin izana adierazi zuten. Horrez gain, EAJko Jon Antxordokik nabarmendu zuen ezin zutela alde bozkatu, udaltzain kaporalen hizkuntza eskakizuna murriztu izanaren aurka daudelako.

Inbertsio ugari herriko azpiegituretan

Aurrekontu zirriborroei egindako hamabost zuzenketen herena onartuta osatu dute 2019ko udal aurrekontua. Udal gobernuak 28 milioi euro erabilgarri izango ditu tasak, zergak, foru funtsa eta Zatarain nahiz Zabaleta Berriko udal lurren besterentzea batuta. Kopuru hori bost atal nagusitan banatuko dute: 12 milioi, oinarrizko zerbitzu sozialetara; 8 milioi, ondasun publikoen ekoizpena; 4 milioi, jarduera orokorretara; 2,5 milioi, babes eta sustapen lanetara; eta 269.000 euro, jarduera ekonomikoetara.

Inbertsioetara bideratutako diru kopurua baliatuko dute, besteak beste, Basaundiko auzoa berritzera, 1,17 milioi; Atsobakarreko futbol zelaia egitera, 1,3 milioi; Jaizkibel eraitsi eta berreraikitza, 500.000; Sasoeta eta Landaberri ikastetxeetako eraikinak hobetzera, 448.000 eta 307.000, hurrenez hurren; eta 120.000 eurona hilerria errehabilitatzera eta gune publiko bat estaltzera.

Gastu guztien batura diru sarrerak baino 6.000 bat euro gutxiago izatea espero dute.

Markesina berria jarriko dute Oriako autobus geralekuan

Karmengo kaperaren ondoan jarriko dute Oriako autobus-geraleku berrirako markesina. Construcciones Metalicas Biok enpresari adjudikatu zaio ia 12.000 euroko kostua duen lana. Markesina hango gurasoen aspaldiko eskakizuna zen eskolarako autobusaren zain dauden bitartean haurrak eguraldi txarretik babesteko.

Hezedurak kentzeko lanak, Michelingo aparkalekuan

Michelingo kiroldegia azpian dauden aparkalekuan hezedura iturri bat ezabatzeko obrak egingo dituzte. Hauen xedea, Michelingo eskola jangelako zorrotzen lekuz aldatzea izango da, kanpoko aldera lekualdatuta. Obrak aurrera eramateko ardura Illarreta enpresari eman dio udalak, 14.368 euroko aurrekontuarekin.



Tenis pisten azpian dagoen aparkalekuko hezetaraz arazoak konponduko dute. UDALA

Martxoaren 8ko kartela aukeratzeko lehiaketa abian da

Proposamenak aurkezteko epea hilaren 27an amaituko da. 12 eta 17 urte arteko edonork parte har dezake, eta teknika librea egindako nahi adina proposamen aurkeztu. Hiru kartel aukeratu dituzte, eta irabazlea 2020ko Martxoaren 8ko egitarau ofiziala iragartzeko erabiliko dute. Oinarri osoak udalaren webgunean eskuragarri daude.

Liburua eta kontzertuak, urtemuga ospatzeko

Datorren ostiralean ospatuko dute Lasarte-Oriaren sorreraren 33. urteurrena. Alde batetik, 'Retazos III' liburuaren aurkezpena egingo dute; dokumentu historikoen bilduma da. Bestetik, Esparza eta Medina musikariek kontzertua eskainiko dute

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak ez du historia luzea. Hain justu, 1986ko otsailaren 15ean eratu zen, Hernanitik eta Urnietatik bananduta. Halere, Jesus Zaballos alkatea nabarmendu duenez, "historia askoz ere luzeagoa" du herriak. Eta hori oroitzeko, datorren ostiralean udalerrriaren urtemuga ospatuko dute, modu berezi batean. Alde batetik, Jose Luis Navaroren *Retazos III* liburua aurkeztuko dute, herriaren historia jasotzen duten dokumentuekin eginiko kronika. 18:00etan izango da aurkezpena, kultur etxean. Bestetik, Danok Kidek antolatuta, *Nébel Duoa* ikuskizuna eskainiko dute, 19:30ean, Brigitarren komentuan.

Bide neketsu eta luzea independentziara bidean. Lelo horrek laguntzen dio *Retazos III* izenburuari. Navarrok berak azaldu duenez, luzea izan zen prozesua, 120 urteko epea hartzen baitu; 1866. urtetik 1986ra. "Nekagarria izan zen, gure udalerrria kudeatzen zuten herrien borondate, interes falta eta utzikeriarengatik".

Horrenbestez, XIX. mendean hasi du Navarrok bere kontakizuna. Garaiko idatzen eta udal akten bidez jasotzen



Danok Kideko Egizabal, Zaballos alkatea, Iglesias zinegotzia, eta Navarro. TXINTXARRI

du lasarteoriatarren "independentzia nahia".

Kontzertuak kultur agendan

Ondoren eskainiko duten kontzertua berezia izango da oso. Alde batetik, parte hartuko duten bi musikariek kalitateagatik; Jose Miguel Esparza klarinete jotzailea, eta Mercedes Medina piano jotzailea. Eta bestetik, udalerrriaren eratzeko akta sinatu zen tokian bertan joko dutelako. Omenaldi gisa, Lasarte-Oriako ereserkia interpretatuko dute.

Hala ere, otsaileko kultur agenda askoz ere zabalagoa da. Hilaren 13an, asteazkenean, *Andrea Bocelli eta Izotz gaineko patinaje hoberena* emango dute, 19:00etan, kultur etxeko auditoriumean. Operazaleak erakartzeko asmoz, balleta eta kantua uztartzen dituen ikuskizuna aukeratu dute, pantaila handian emateko. Bocelli beraz aparte, Zara Errusiako abeslariak jarriko du ahotsa. Gainera, munduko patinatzaile hoberenatariko batzuek parte hartuko dute.



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Hizkuntza moldatu, gizartea aldatzeko

Argi daukat. Hizkuntzak gizarte batean duen eragina izugarria da. Hizkuntza desberdinen arau, hitz, esaldi, esamolde eta abarrek gizarte mota bati buruzko informazio nahikoa zehatza ematen digute.

Hizkuntzak elementu bizia behar du ezinbestean. Malgua, etengabeko eraldaketan dagoena, garaietara egokitzen dena. Gizarteak eta hizkuntzak jakina den erlazio zuzena daukate; ez berezkoa duten lotura kultural soil. Jendarteak izan ohi dituen ohitura, jarrera eta jokabideen giltzarri delakoan nago.

Hizkuntzaren bidez komunikatzen gara, informazioa jasotzen dugu, iritziak plazaratzen ditugu eta neurri handi batean haren erabilera eramatean gaitu askotan hainbat gaitan hausnartzera. Batzuetan erabilera gramatikal hutsa izan daiteke jomuga. Beste batzuetan, ordea, erabilera egoki bat egiteko hitzak neurtu, ongi josi eta hausnartu egin beharko ditugu. Erabilgarriak eta aldakorak diren hizkuntzek bakarrik egiten dute aurrera arlo sozialean.

Euskara, hizkuntza bizia, gozoa, berezia bezain maitea. Arlo sozialean konprometitu al da? Erabilera egokia ematen ote diogu? Hizkuntzari hiztunok ematen diogun erabilera baitan izango da hizkuntza hori eredu. Lan asko egiten ari gara azken urte luze hauetan hiztun moduan hizkuntzaren alderdi sozial horren inguruan. Jarrai dezagun gure hizkuntza hitzez, soinuaz, hizkiz eta abarrez betetzeaz gain, giza eskubide eta berdintasunez ere betetzen, eta ez dezagun ahantzi, hizkuntza eraldatzaile bat nahi baldin badugu, derrigorrean, izen, adjektibo eta aditz egokiak erabili beharko ditugula lerro, paragrafo eta testuetan.

Eguzki printzak ageri dira. Haur bati Olentzero datorrela esatean "eta Mari Domingi ere" erantzuna jasoko duzulako askotan, ikastetxeetako oharrak "familiei" zuzentzen dizkietelako, generazio berriei kirolari hitzak jada ez dielako "gizonezkoen" irudia soilik ekartzen gogora. Hizkuntza eta bere testuinguru soziala.

Ez dezagun ahantzi, erabilera horretan, gauzak bere izenez izendatzea. Hizkuntzak diskriminatu, bereizi eta bakandu ere egiten duela gogoan izan. Egunero-egunero gure gizartearen emakumeak "hil" egiten diren albisteetan bezala, esaterako, "erailak" izan direla esan beharrean. Adibide krudela honakoa, baina hizkuntzaren erabilera zuzenaren pedagogiak ezinbestekoak ditu errealitate zaplasteko gordinak hainbatetan. Izan gaitetzen hizkuntzaren erabiltzaile arduratsuek gurekin, albokoarekin eta gizartearekin aurrera joan nahi badugu.

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?

DESKONTU BEREZIAK HERRIKO KOMERTZIOEI

publizitatea@ttakun.eus
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

Thailandia

IRTEERA 2019ko MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

NOAOA BIDAIAK

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

MAITE

ESTETIKA ARETOA

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Solariuma
- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a

opari-bartel moduan oparitu ditzakezu!

Oparitu ongizatea zure bihotzari

Zerbitzu mistoak

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Itsasoaren inguruan hausnarketa sustatzeko

Astelehenean hasiko dute Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa. Hilaren 11n, 18an eta 25ean, 19:00etatik 20:30era, "beste munduak ezagutzeko" gonbita egin dute antolatzaileek. Gaztetxoak ere hurbildu nahi dituzte kutsadurari buruz hausnartzera

Txintxarri

Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa egonkortuta dago, ez Donostian bakarrik, baita Lasarte-Oria ere. Aurten 11. aldiz egingo dute herrian; hurrengo hiru astelehenetan, otsailaren 11n, 18an eta 25ean, 19:00etatik 20:30era. Doan dira sarrerak. Urte gorabeheratsu batzuen ondoren, azken edizioetan aretoak bete dituzte ikus-entzuleek. "Itsasoaren kutsadurarekin lotutako arazo larriak direla eta, gero eta lan gehiagok erakusten digute itsasoan dugun zabor kopuru handia. Eta arazo horrek jendea kontzientziatzen eta erakartzen du", azaldu du David Sanchez zikloaren zuzendariak. Real Sociedad futbol taldearen Itsaspeko Ekintzen atalak antolatzen du zinemaldia, 1975. urtetik.

Ikus-entzunezkoek gain, aurtengo zikloan aurkeztu diren argazkiak ere ikus daitezke. Manuel Lekuonan, datorren astelehenetik hilaren 26ra arte, egongo da zabalik erakusketa, 17:00etatik 21:00etara.

Ikusita itsasoaren egoera kezagarria, beste lehiaketa bat hasi dute zikloan, kutsadura eta beste arazoak salatzen dituzten lanak saritzeko.

Bestalde, gaztetxoak erakartzeko indarrak jarri nahi dituzte, horiek izango baitira etorkizuneko itsasoaren zaintzaileak. Hori dela eta, Txikiziklo abiatu dute. "Helburu du plastikoek eta zaborrek sortzen duten arazoak hausnartzea". Lehen Hezkuntzako 200 haurrek AZTIko adituen hitzalditxo bat jasoko dute, eta gero eskolan landuko dute gaia. Landaberi ikastolakoekin egingo dute aurten proba, baina epe laburrera begira, antolatzaileek Sasoeta-Zumaburukoekin ere egin nahiko lukete.



David Sanchez eta udal ordezkariak, Jesus Zaballos eta Maite Iglesias. TXINTXARRI

Nazioarteko Itsaspeko Zinema "erreferente bat" bilakatu da, Sanchezen hitzetan; mundu osotik jasotzen dituzte lanak. Udalari eta babesleei eskerrak eman dizkie, herritarrei doan eskaintzeagatik zikloa.

BESTE LEHIAKETA BAT ABIATU DUTE, KUTSADURA SALATZEN DUTEN LANAK SARITZEKO

Egitaraua

Astelehena 11

• **Zergatik urperatzen gara?** Luis Martinezen hitzaldia. **La Plasteria.** Cesare Maglioni. **Anhelo Azul.** Marc Pedrals Prat. **Euskal Urdina.** Isaias Cruz Irujo.

Astelehena 18

• **Underwater Basque Country. El otro mar de los vascos.** Alberto Santolaria. **Ruido (Lagunas de Ruidera).** Jose Antonio Valverde. **Anilao.** Alex del Olmo. **Impermanencia.** Julian Rodriguez. **Hondar2050.** Cesare Maglioni. **Maldivas.** David Galdan. **Deep.** Mikel Yarza. **Pura Maro.** Maite Erauskin. **Scorpionfish.** Guy eta Anita Chaumette.

Astelehena 25

• **Argazki irabazleak.** Javier Ferrer, Massimo Giorgetta, Manuel Campillo, Iñaki Alcalde eta Aldo Gustavo Galante. **Momentos robados.** Borja Inza. **Philippines.** Alex del Olmo. **Ocean Shock.** Alberto Santolaria. **Los secretos del angel.** Elodie Turpin. **Pisciforms.** Olivier Van den Broeck. **Black & Blue.** Julie Ouimet. **Truk Lagoon.** Alex del Olmo. **De cerca.** Daniel Aldaya.



Alderdiako kideen bozen bidez osatu dute hauteskunde zerrenda. IÑIGO GONZALEZ

Ahal Du Lasarte-Oria Pudek zerrenda kideak aukeratu ditu

Asteburuan egindako hauteskunde primarioekin, udal hauteskunde zerrendagaiak aukeratu ditu alderdiak

Txintxarri

Ahal Du Lasarte-Oria Pude (ADLOP) alderdiak asteburuan ebatzi zuen maiatzeko udal hauteskundeetara zein ordezkari aurkeztuko dituen. Alderdiaren ohiko erabakitze prozesuari jarraituta, kideen eskuetan zegoen ardura hori, eta horregatik, hauteskunde primarioak egin zituzten larunbat goizean kultur etxean. Edizio hau ixterako emaitzak ez dituzte publiko egin.

Bozkatzera joan zirenek zerrenda nori osatuko duen eta zein hurrenkeratan erabaki behar zuten. Bere burua aurkeztu duten

zazpi lagun artean, hiru emakumezko eta lau gizonezko, aukeratu behar izan zuten: David Ares, Beatriz Aygues, Alejandro Herrero, Elena Murillo, Alexander Pozo, Tania Rodriguez eta Miguel Tolosa.

Zalantza nagusia alkategai nahiz eta lau urtez proiektuburu nor izango zen argitzea zen. Lehian, egungo zinegotzi, Ares, eta Tolosa zeuden.

ADLOPEK ibilbide laburra badu ere, sorreratik ordezkariak ditu udalean. Izan ere, udal hauteskundeetan 2015ean parte hartu zuen lehenengoz, eta hiru zinegotzi lortu zituen.



TXEMA VALLES

Zartagin soinuak giroa alaitzeko

Dibertitzeko gogoia eguraldi txarra baino gehiago denean; kaldereroak ospatu ditu Sasoeta Sasoian elkarteak asteburuan. Dozenaka pertsona ibili ziren larunbat arratsaldean auzoko kale eta bazterretan barrena, giro goibela alaitu nahian, mailu, eltze, zartagi eta antzeko tresnak astinduta.

25 urte bete ditugu, guztiei esker

Mende laurdeneko ibilbidea osatu du Lasarte-Oriako Meka Leku akademiak. Denbora horretan guztian bertako ikasle izan direnei eskerrak eman nahi dizkiete. Ehunka haurrei irakasteko aukera izan dute, baina irakasleek esan dute ikasleengandik "askoz ere gehiago" ikasi dutela

Hogeita bosgarren urteurena beteko du Meka Leku akademiak datorren asteartean. Urte horietan guztietan bezero izan dituzten ikasle eta gurasoei eskerrak eman nahi dizkiete, hogeita bost urtez bidelagun izateagatik.

Asko izan dira akademiaren filosofiarekin bat egin eta urteetako konfiantza erakutsi dutenak. "Gure ikasleekin enpatizatu eta elkarrekin euren zailtasunak gainditzeko saiatu gara", azaldu du irakasle lantaldeak. Meka Lekuko irakaskuntza balioetan oinarrituta dago: "Inteligentzia harago, konfiantza eta eguneroko lana dira garrantzitsuak helburuak lortzeko, eta gu hori transmititzen saiatu gara urte hauetan guztietan".

Konfiantza

"Gure irakaskuntzan konfiantza dutela ikusteak harro sentiarazten gaitu". Horregatik, 25 urte igaro arren, hasierako ildo horretatik lanean jarraitzeko eta egunetik egunera hobetzeko konpromisoa dute bertako irakasleek, betiere euren filosofia ahaztu gabe. "Inteligentziak eta tituluek ez gaituzte definitzen, ondoko balioek baizik: errespetua, zintzotasuna, borroka eta konfiantza".




Batxilergo ikasleak pozik daude Meka Lekun: "Ez da akademia bakarrik. Familia eta lagun giroan ikasteko tokia baizik. Gure gaitasuna indartzen dute". MEKA LEKU



Lehen Hezkuntzatik daude batzuk akademian: "25 urte horietan parte naizela sentitzen dut. Aprobatzeko bidea zein den erakutsi didate". MEKA LEKU



Lehen Hezkuntzako ikasleak: "Orain ez naiz etxekolanen beldur, eta ikastolan ulertzen ez nuena orain erraza iruditzen zait". MEKA LEKU



Gurasoa

Ikasle ohia naiz, eta laguntza behar izan nuenean ez nuen zalantzarik izan semea Meka Lekura bidaltzeko.



Gurasoa

Gure seme-alaben ikasketako une onak eta txarrak konpartitzen ditugu, familia baten moduan.



Ikasle ohia

Nigan sinetsi zuten, eta nire bidea aurkitzen lagundu zidaten.



Ikasleak

Familia ugariak ere baditugu.



Ikasle ohiak

Meka Lekun ikaskide izan ginen, eta orain kuadrilla.



Ikasle izandakoa, irakasle

Dani: "Meka Lekuk ikasle eta irakasle izateko aukera eman dit. Politena da ez nukeela jakingo bi horietako zein esperientzia aukeratu".

Irakasle talde ezin hobea

Meka Lekuren altxorrik balioetsuena da bere irakasle lantaldea, eurak baitira ikasleen euskarri eta aurrera jarraitzeko motorra.



Akademiako irakasle taldea. MEKA LEKU

Kopla kantuan

Makilak astindu dituzte santu eskean

Makil hotsak goizean eta arratsaldean. Eguraldiak mehatxua egin arren, ez zen nahikoa izan Santa Ageda bezpera zapuzteko. Goizean eguzkiak lagundu zuen Landaberriko Haur eta Lehen Hezkuntzako koplak berotzen. Herriko erdialdeko kaleak zeharkatu zituzten irakasle eta gurasoen laguntzarekin. Zaharrenek Okendo plazan eskaini zituzten abestiak; txikienek, berriz, Ama Brigitarrei bisita egin zieten. Arratsaldean ere bildu ziren santu eskean. Landaberri LH6koak izan ziren lehenak ahotsak berotzen. Xumela koruak Okendon hasi zuen ibilbidea eta besteak beste, Ama Brigitarren komentuan koplak abesten egon ziren, goizean etxeko txikiak egin antzera. Erketzek Santxo tabernan hasi zuen erronda, eta iluntzera arte kantuan aritu ziren. Zabaletan ere eztarrez sano dabilzala erakutsi zuten auzoan eta baserrietan zehar, sagardotegira afaltzera joan aurretik.



Landaberri ikastolako LH1 eta LH2 mailako gaztetxoak Okendo plazan izan ziren santu eskean. TXINTXARRI



Lkastolako HH4 eta HH5 mailakoek makilak ederki astindu zituzten koplaren erritmora. TXINTXARRI



Landaberri ikastolako HH4 eta HH5 mailako haurrek Maria Dolores Iturbe irakasle ohiaren laguntza



Koplen orria esku batean eta aterkia bestean, arratsaldean euririk ez zuen hitzordura falta nahi izan.



izan zuten Santa Ageda bezperako erronda egiteko. TXINTXARRI



Xumela koruko lagunek gitarraren laguntzaz eskaini zituzten santa eskeko doinuak. TXINTXARRI



Kaleetan ez ezik, tabernetan ere entzun zituzten Santa Ageda bezperako kantuk . TXINTXARRI



Xumela koruko eta Erketz EDTko lagunek oles egin zuten erdiguneko kaleetan. TXINTXARRI



Zabaleta auzoko lagunek ere ohiturari eutsi zioten. Ezin hitzordura falta, 27 urte dira lehenengoz atera zirenetik. TXINTXARRI

PLAZAN BAZAN

Estropezua

Ui ene. Gizajo honek estropezu egin du triku batekin.
Zein ote da bere itzal zuzena?



Ba dok hamahiru!

Hau desastrea, autobus honetan! Horra zer ikusten duen autobus-gidariak ispilutik... Begiratzen duen bakoitzean, gainera, aldaketaren bat gertatzen da. Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.



Sirena

Osa ezazu sudokua, SIRENA hitzak dituen hizkiak erabiliz (S, I, R, E, N eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Zer arraio egiten ote dute bi izar horiek nire bularretan...

E	i			R	
A		E	S		
	A			E	N
N	R				
i			A		
	S				E

A B C D E F
G H I J K L
M N O P R S
T U W X Y Z

Mezu ezkutua

Jar ezazu ikonotxo bakoitzaren azpian, hari dagokion hizkia. SIRENA esateko beste bi hitz osatuko dituzu.



Esaera Zaharra

Esaldi hauek ez dira esaera zaharrak, erdi asmatuak dira denak, bat izan ezik. Zein ote da benetako esaera zaharra?

- Astoaren mina, mandoaren atsegina.
- Astoa, astoaren adiskiderik fidelena.
- Astoak ispiluari musu.
- Astoak arrantzarik egiten ez duenean, maiteminduta dagoen seinale.
- Astoek eta ministroek, irribarrea faltsu.
- Astoak mandoari, belarri luze.
- Etxeko astoa, nekazariaren orpoa.
- Astoak eta mandoak, ardoak ditu baretzen.
- Astoa beti setoso.

Egilea: Garbiñe Ubeda

Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Zozketa!

Ttakuneko bazkide zara?

Gure bazkideen artean zozkatuko ditugu!

TTAKUNENEAN OSPATUKO DEN BARRIKOTERAKO BI AFARI TXARTEL

Eman izena otsailaren 11 baino lehen

harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.

eman izena!

Ttakun
Kultur Elkartea

@TtakunKE

BARRIKOTEA

ttakunenea elkarte

otsailaren 15ean (ostirala)

AFARIA 21:00etan TRIKITIXAKIN GIROTUA

20 €

Txorixo egosia
Bakailau tortilla
Saiheskia
Entsalada
Gazta, irasagarra eta intxaurrak
Kafea eta kopa

Ttakun
Kultur Elkartea

Txartelak TTAKUNeko bulegoan eta ILARGI tabernan salgai. Izena emateko epea: otsailaren 11, astelehena.

Asteburu honetan ere derbia dago Anoetan

Realak eta Athleticek igande goizean neurtuko dituzte indarrak, 11:30etik aurrera. Iazko arrakasta ikusita, Donostiako estadioan jokatuko dute berriro. Bosgarren dira bilbotarrak, 34 punturekin; sei gutxiago dituzte txuri-urdinek. Biak daude kopa postuetan orain

Iñigo Gonzalez Sarobe

Reala-Athletic. Iberdrola ligan ikus daitekeen norgehiagoka erakargarrietako bat. Igandean neurtuko dituzte indarrak bi taldeek, Anoetan, 11:30ean. Obretan dago estadioa orain; futbolariak askoz gertuago sentitzen dituzte ikusleen animoak aurrean. Jokalariak eta klubek espero dute harmailak betetzea, iaz bezala; 21.500 bat zale joan ziren orduan. Txuri-urdinek 1-4 galdu bazuten ere, festa erraldoia izan zen maiatzeko egun euritsu hartakoa.

Motibazioz gainezka daude donostiarrak. Hain justu, kopako finalerdia jokatuko dituzte Sevillaren aurka. Zortea lagun izan dutela oraingoan; izan ere, Bartzelona eta Atletico Madril saiheste lortu dute, txapelketako bi talderik indartsuenak. Gainera, Andaluziako taldea bolada kaskarrean da; elkarren arteko aurreko norgehiagokak poltsikoratu dituzte donostiarrak.



Iraia Iparragirre, baloia errematatzen. REAL SOCIEDAD

Partida bakarrera jokatuko da finalerdia, Donostian, hilaren 17an.

Modu horretan, bigarren aldiz iritsiko da Realak kopako finalerdietara. Azken aldia 2011n izan zen. Bartzelonaren aurka

galdu zuen orduan, 0-2. Ordu hartan Iraia Iparragirrek ez zuen jokatzen Realean.

Kopan emaitza onak kateatu ditu Realak. Azken kanporaketan Rayo Vallecano jaso zuen Zubietan. Askoz ere gehiago

izan zen zelaian, hasi eta buka, eta 4-0 irabazi zuen, finalerdietan aritzeko txarteleko bat lortuta.

Edonola ere, aurretik euskal derbia jokatu beharra dute Realeko futbolariak. Bi taldeak sasoi betean daude orain. Gonzalo Arconadak entrenatzen duen taldea bikain hasi zen ligan, Bartzelona eta Atletico Madrilekin lehian. Jardunaldiak pasatu ahala, ordea, emaitza txar batzuk kateatu eta sailkapenaren erdialdean geratu ziren. Azken jardunaldietan buelta eman diote dinamika negatibo horri, eta seigarren postuan dira orain, 28 punturekin. Hain justu, Sevillaren aurka lortu zituzten azkeneko hirurak, joan den asteburuan. 0-2 irabazi zuen Realak. Nahikari Garciak eta Kiana Palacios sartu zituzten golak. Iparragirre lasarteoriatarra hasieratik aritu zen. Baliteke igandean ere hamaikakoan egotea, denboraldi honetan minutu asko jokatuko baititu. Iazko derbian ere titularra izan zen.

Txuri-urdinek baino sei puntu gehiago dauzka zakuan Athleticek, eta bosgarren postuan dago, Realak bezala, koparako sailkatuta, momentuz. Oso motibatuta iritsiko da Anoetara, laugarren postuari hozka egiteko asmoz; puntu bakarrera baitago Betis. Urrunago dago Levante, 43 punturekin. Bartzelona eta Atletico Madril, berriz, beste planeta batean. Ezusteko

ikaragarririk ezean, bietako batek irabaziko du Iberdrola liga.

Bi derbi zortzi egunetan

Duela zortzi egun Santander Ligako derbia jokatu zuten Realak eta Athleticek Anoetan. Etxekoek irabazi zuten, 2-1, Oiarzabal eta William Joserren golei esker. Raul Garciak urduri jarri zituen realzaleak, berak jaurtitako penaltiaren aldaratzea sareetara bidaltzean 80. minutuan. Ezin izan zuten berdinketaren gola sartu, ordea.

Igandeko derbia izango da Donostiako estadioan jokatuko den bigarrena. Bi sekulako partida zortzi egunetan. Zaleak ari dira erantzuten, eta espero da iazko asistentzia zifretara iristea edo gainditzea. Bistan da emakumeen futbolak gero eta interes gehiago pizten duela kirolzaleengan. Adibide bat jartzearen, duela astebeite 48.000 pertsona joan ziren San Mamesera, Athleticen eta Atletico Madrilaren arteko neurketa ikustera. Espainiako Kopako partida izan zen, final laurdenetako. Madrilarrak irabazi zuten, 0-2.

HURRENGO IGANDEAN KOPAKO FINALERDIA JOKATUKO DU REALAK DONOSTIAN

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN GORENGOA
Trintxerpe KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:15. Trintxer, Pasaian.
ERREGIONALEN 1. MAILA
Vasconia CD - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Puijo, Donostian.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Aretxabaleta KE UDA Larunbata. 17:15. Michelin Kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Real Union Club SAD - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Gal. Irunen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Hondarribia FE - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Ondartzeta, Hondarribian.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Euskalduna SD Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
Billabona KE B - Ostadar SKT A Larunbata. 12:00. Arratzain, Villabonan.
INFANTIL OHOREZKO TXAPEL DUNEN FASEA
Ostadar SKT - Real Union Club SAD Larunbata. 10:30. Michelin Kirol gunean.

INFANTIL TXIKIAK, PARTE HARTZEA
Ostadar SKT - Orereta Kafea FC Igandea. 11:30. Michelin Kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA
Texas Lasartearra CF - Udarregi Usurbil FT B Igandea. 14:30. Michelin Kirol gunean.
Ostadar SKT B - Euskalduna SD Igandea. 13:00. Michelin Kirol gunean.
ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Viña del Mar - Academia London Larunbata. 09:15. Michelin kirolgunean.
Bar Buenetxea - Izengabe Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Insausti taberna - Avenida Taberna Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Patricio Cocktail Bar - Asador Irigoien Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
3. NAZIONALA
Kukuyaga FC - Antiguoko KE Larunbata. 18:00. Etxebarri, Bizkaian.
GIPUZKOAKO SENIORRA
Gure Txokoa - Aldaz Klinika Ostirala. 20:30. Toki Ona kir., Beran.

Trintxerpe KE - Garoa Taberna Larunbata. 18:00. Pasai Donibane kir., Pasaian.
GIPUZKOAKO II. MAILA
Donibane Stokke - ISU Leihoak Larunbata. 20:00. Pasai Donibane kir., Pasaian.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Zarautz KE Mollarri- Bar Lasarte Larunbata. 09:00. Antoniano kir., Zarautzen.
GIPUZKOAKO KADETEAK
Balerdi Harategia - Laskorain KE Larunbata. 11:20. M. Chourraut kiroldegian.
SASKIBALOA
SENIOR EMAKUMEZKOAKO
Añorga Saskibaloia - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Benta Berri kir., Donostian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Getariako KETA Ostirala. 20:30. M. Chourraut kiroldegian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
TAKE Redline Mekanika - Ostadar SKT A Larunbata. 10:30. Usabal kir., Tolosan.
KADETE PARTE HARTZEA
Ostadar SKT B - SUMMA Aldapeta Larunbata. 16:00. M. Chourraut kiroldegian.

KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Añ. Sn Sebastian Andatza Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
KADETE PARTE HARTZEA
Ostadar SKT B - Bergara Soraluze KE Igandea. 11:15. M. Chourraut kiroldegian.
PILOTA
ESKUZ BINAKAKO TXAPELKETA, FINALURDENAK
Artola eta Mariezkurrena II - Arteaga II eta Albisu Igandea. 17:00. Ogeta pilotalekua, Gasteizen.
UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA
Intxurre 2 - Intza 2 Ostirala. 18:30. Elorri, Alegin.
LASTERKETA
KOBAS KOPA TRAIL
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Kobaz Koba Traileko 26 km eta 15 km probetan parte hartuko dute. Igandea. 09:00. Zestoan.
ERREGEETAKO NAZIOARTEKO KROSA
Hainbat herritarrek Gimnastika Uliar- Erregeetako Nazioarteko kroso 10

km. eta 5,3 km. probetan parte hartuko dute Igandea. 11:15 eta 12:15. Donostian.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz RT - AVK Bera Bera RT Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA
Sarako Izarra RT - Babyauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. Sara, Frantzian.
18 URTE AZPIKOA
Babyauto Zarautz Beltzak - Gernika/Elorrio Larunbata. 14:30. Michelin Kirol gunean.
16 URTE AZPIKOA
Babyauto Zarautz Beltzak - Gernika/Elorrio Larunbata. 16:00. Michelin Kirol gunean.
14 URTE AZPIKOA
Arrasate RT - Babyauto Zarautz Beltzak Larunbata. 11:00. Mojategi, Arrasate.
BOLA-JOKO
BIKOTEKAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko kideek azken sailkapen saioa jokatuko dute. Igandea. Egun osoa. Idiazabal.

Nahia Zudaire, Espainiako txapelketan nagusi

Lehiaketako emaitzak direla eta, AXA taldeak etorkizuneko paralinpiko izendatu du Zudaire. Buruntzaldea IKTKo infantil eta alebinek Gipuzkoako Neguko txapelketan eta Eskolarteko Gipuzkoako txapelketan lehiatu dute; marka eta dominak eskuratu dituzte

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek Espainiako igeriketa egokituko txapela eskuratu du aurten ere. Infantil mailako igerilaria urtarrilaren 26ean eta 27an Valdemoron (Madril) izan zen, Euskadiko Selektzioarekin Igeriketa Egokituko Adin Tarteetako AXA Espainiako Txapelketan parte hartzen.

"Aurreko denboraldian bezala, Nahiak txapeldun izatea lortu du, eta gure gaztetxoak duen kirol maila bikaina nabarmen utzi du," adierazi du Buruntzaldea IKTKo Borja Apeztegia entrenatzaileak. Zudairek txapelketan jokatuak lau probetan lortutako puntuazioaren baturari esker lortu zuen lehen postua.

Larunbat arratsaldeko saioan, Nahiak 50 m. tximeleta eta 100 m. libre probatan lehiatu zuen. Bietan marka pertsonala ondu zuen. Tximeletako 50 metroetan 37,34 denbora egin zuen, eta 100 m. libre proban, aldiz, 1:11,75. "Sekulako marka", entrenatzailearen hitzetan. Marka horiei esker, sailkapeneko lehen postuan zen jardunaldia amaitzean.

"Igandean ere bikain aritu zen Nahia". Lehen proban, 100 m. tximeletan, 1:23,81 eginda bere aurreko marka hobetzea lortu zuen. Eta azkenik, 50 m. libreakin, 34,42 denborarekin bere laugarren marka pertsonala egitea lortu zuen.

Lau marka pertsonal horiekin 2.764 puntu eta urrezko domina eskuratu zuen. "Aurreko urteko 2.383,4 puntuak nabarmen gainditu zituen". AXA taldearen etorkizuneko igerilari paralinpiko izendapena ere jaso zuen Zudairek sari banaketaren aurretik.

Domina eta marka gehiago

Hori ez da Buruntzaldeako igerilariak azken asteetan lortutako domina bakarra. Pasa



Nahia Zudaire. BURUNTZALDEA IKT

den asteburuan infantil mailako Gipuzkoako Neguko txapelketa eta alebin mailako Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa lehiatu zituzten, eta Buruntzaldea IKTKo gazteak lehen postuetan izan ziren, haien markak onduz.

Aintzane Sarobek 100 m. libre eta 100 m. tximeleta proban Gipuzkoako txapela eskuratu zuen. Lehenengoan, gainera, Espainiako txapelketerako gutxineko marka egin zuen: 1:00,55. Horrez gain, Sarobe txapeldunorde izan zen 200 m. libre proban.

Eneko Elizasu 1.500 m. eta 800 m. libre proban garaile izan zen. Nerea Santosek ere bi proba horietan parte hartu eta urrezko eta zilarrezko dominak lortu zituen.

Unai G. Somovillak lehen postua egin zuen 200 m. bular proban, eta bigarren postuan amaitu zuen 100 m. tximeleta proba.

Nora Imazek zilarrezko domina eskuratu zuen 400 m. libre proban. Eta mutilek 4x200 m. libre erreleboan brontzea kolokoratu zuten.

Honez gain, 400 m. libreakin Eneko Elizasuk eta Unai G. Somovillak Euskadiko gutxienekoak egin zituzten.

Nahia Zudairek ere parte hartu zuen txapelketan, eta 800 m., 400 m. eta 200 m. libre eta 200 m. tximeleta probetako bere markak hobetu zituen.

Halaber, taldeko alebinek Eskolarteko Gipuzkoako XXXIV. Txapelketan lehiatu zuten. 2007an eta 2006an jaiotako neskek eta 2005ean eta 2006an jaiotako mutilak aritu ziren, guztira hamabost igerilari. Gogotsu lehiatu zuten, eta dominez gain, gehienek markak ere hobetu zituzten.

Nahia Goenagak brontzea eskuratu zuen 100 tximeleta proban. Oier Mateos laugarren izan zen 100 m. lau estiloak proban; June Lopez, bosgarren 100 m. bizkar proban; Nerea Irazu laugarren sailkatu zen 200 bular m. proban, eta nesken 4x200 m. estilo libreko erreleboa bosgarren izan zen.

Txikiak, ezagutzak finkatzen

Bestalde, taldeko benjaminek Test/Ligari jarraipena eman zioten. Urtarrilaren 23an, Ordiziako Majori igerilekuan izan zen bigarren jardunaldia, eta horretan taldeko 42 haur "primeran" aritu ziren.

Aurrebenjaminen mailan, 2010. urteko haurrek, 50 metro bizkar estiloko proba izan zuten; eta 2009. urtekoek, aldiz, 100 m. bizkar proba. 2008. urteko benjamin mutilek 50 m. bular eta 100 m. bizkar probak lehiatu zituzten, eta 2007. urteko neska mutilek 50 m. bular eta 200 m. bizkar probak. 4x50 estilo libreko errelebo proba ere egin zuten maila honetakoek.

"Orokorrean, adin tarte hauetan, lehiaketa emaitzak baino gehiago, arautegiaren inguruko ezagutza eta igeri egiteko modu egokia dira garrantzia gehien ematen diegun arloak, eta zentzu horretan gustura atera ginen", esan du Apeztegiak.

TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatoz Euskal Inauteriak!
Txantxoz janztera animatu nahi zaituztegu.
Jantzia ez duzuenontzat, heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatu dugu.

Eraman beharrekoa:

Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

Noiz: Otsailaren 16an, 17:00etatik 18:30era eta otsailaren 20an, 17:30etik 19:00etara, ambulategiko eraikineko 2.pisua.

Informazioa eta izen-ematea:

Ttakunen, kultura@ttakun.eus edota 943 37 14 48 zenbakian. edo whatsapp-ez 695785389



Buruntzazpiko gazteak, bikain Kluben kopan

Hirugarren postuan amaitu du junior taldeak txapelketa, nahiz eta azken jardunadia punturik gabe hasi. Era berean, Jaime Romerok Bio Racer Challengeko garaikurra jaso du junior mailan; kadeteetan, berriz, Haimar Etxeberria hirugarren izan da

Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek Kluben kopako azken jardunaldia lehiatu zuten igandean, pistako denboraldiari amaiera eman baino lehen. Antonio Elorza belodromoan jokaturako saio horretan podiumeko hirugarren koskan bukatu du taldeak, bigarrenetik oso gertu.

Buruntzazpi eskolako junior mailan lehiatu du aurten, eta taldea osatzeko kadete mailako gazteen laguntza izan dute, Eugenio Pozok Buruntzazpiko entrenatzaileak azaldu duenez.

Kopako lehen jardunaldian Buruntzazpi eskolako kideek ezin izan zuten parte hartu. Beraz, bigarren honetan punturik gabe hasi dira gazteak.

Banakako lau proba egin dituzte: *handicap*, *tempo*, kanporaketa eta *keirin*. Taldeka, berriz, bi: abiadura eta jarraipena. Bi proba horietan, Buruntzazpi lehen postuan izan da.

Lasterketetan metaturako puntuei esker, 50 batu dituzte, eta hirugarren talde onenaren garaikurra jaso dute. Bigarren postuan Bizkaia taldea izan da, Buruntzazpitik puntu batera. Garailea Donostia Berri A taldea izan da, 58 punturekin.



Buruntzazpiko juniorrek hirugarren postua eskuratu dute Kluben kopan. E. POZO

Klubek koparekin batera, Gipuzkoako Bio Racer Challengeko sariak ere banatu dituzte.

Romero, Challenge garaile

Bederatzi jardunaldi osatu dituzte aurtengo Challengean, eta Buruntzazpiko Jaime Romero juniorrak lehen egunetik eutsi dio sailkapeneko lehen postuari. Maila berean, Asier Pozo

laugarren izan da. Kadete mailan, berriz, Haimar Etxeberriak hirugarren postuko garaikurra jaso du.

Asteburu honetan, Haimar Etxeberria, Beñat Carbayeda, Jaime Romero eta Asier Pozo Galapagarren, Madrilen, izango dira, Euskadiko selekzioarekin lehiatzen. Pistako estatuko kopako bigarren saioa da.

Almi Campos, hirugarren Euskadiko txapelketan

Eneko Eizagirrek Espainiako junior txapelketako zuzeneko txartela lortu du; martxoan izango da Madrilen

Txintxarri

Judoko Euskadiko junior txapelketa lehiatu dute igandean Hernanin. LOKEko Almi Camposek borroka borroka brontzeko domina erdietsi du.

Poz handiz hartu du ere LOKEko Eneko Eizagirrek Espainiako

txapelketarako sailkapen zuzena. Martxoan Madrilen izango du hitzordu garrantzitsua. Bestalde, alebinek Gipuzkoako taldekako txapelketan parte hartu dute. "Lan ederra egin dute, eta judo ona erakutsi dute", adierazi du Gorka Aristegi entrenatzaileak.



Almi Campos, dominarekin. G. ARISTEGI

Ostadar inklusioa, saskibaloia eta atletismo txapelketetan

Ostadar SKTko Inklusio taldeko hainbat kide Euskadiko selekzioarekin izan dira lehiatzen Espainiako txapelketan

Txintxarri

Ostadar SKT Inklusio taldeko kideak lehiaketaz lehiaketa dabilta.

Pasa den asteburuan, Ander Altuna, Manex Pagola eta Ander Goenaga gazteak Iurgi Olsagasti teknikariarekin batera, Madrilen izan ziren Euskadiko selekzioarekin, Espainiako Gorpildun Aulkiko Saskibaloiko Txapelketan aritzeko.

Bestalde, Ezequiel Hernandez, Ane Asensio, Xuban Santin, Diana Benedicto eta Iñigo Benedicto atletek Espainiako Kluben Kopako



Atletismo probetan lehiatzen. OSTADAR INKLUSIOA

jardunaldietan lehiatu zuten. Urtarrilaren 27an, berriz, Gipuzkoako Atletismo Txapelketan proba egokitueta ere parte hartu zuten.



LASARTE-ORIA TRAIL

Negu Trail, elur artean lasterka

Igandean, Negu Trail proba lehiatu zuten Berastegin. Hainbat herritar izan dira mendi lasterketa horretako irteera puntuan, Lasarte-Oria Trail taldeko hamabost kide, besteak beste. Elurrari eta hotzari aurre eginez, bakoitzak bere eritmorra egin du proba. Azkarrena, Ibon Agirre izan da 1:44:11 denbora osatuta. Halaber, Raul Gomez Margallo bigarren izan da Urrietako On Bosko krosean.

LOKEko gimnastek ederki hasi dute amateur txapelketa

LOKEko gimnastek txapelketen denboraldiari hasiera eman zioten larunbatean. Amateur mailako txapelketako lehen saioa izan da Bergarako Labegaraita kiroldegian, eta emaitza onak lortu dituzte.


Banakako lehiaketan, senior A mailan, Aizpea Arroyo eta Garazi Gomez lehen eta hirugarren izan dira uztaiarekin

lanean. Maitane Arroyok ere uztaiarekin lan egin ostean, lehen postua lortu du, Kadete B mailan. Jaione Martosek pilotarekin jubencil B mailako laugarren postuan amaitu du saioa.


Taldee dagokionez, senior A mailan bigarren izan da LOKE, eta Kadete B mailan, LOKE-Oriarte laugarren. LOKE-St. Teresak seigarren postua eskuratu du.

LOKEko talde teknikoa oso pozik agertu da lehen saio honetan lortutako emaitzekin.

ZORION AGURRAK



Markel
Zorionak Markel!!! Oso ondo pasa zure 1 urtebetetzean. Muxu handi bat zure familiaren partetik.




Nora
Zorionak pritzesa, aita, ama, Mikel eta Mariaren partetik. Muxu asko.



Oihana
Zorionak sorgina zure hirugarren urtebetetzean, aita, ama eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!



Iraide
Zorionak maitia!!!! Ondo pasa zure eguna. 5 muxu haundi ama, aita eta Oihaneren partetik.



Ane Miren
Iritsi da egunaaaaa!!!! Zorionak maitia eta jaso milioi muxu. 13 urte hauetan bezelaxe jarraitu guri poza eta alaitasuna ematen.



Elia
Aupa txapeldun!!! Gero eta gubxiago geratzen da Giroa elkarrekin ikusteko. On egin diezazula bizkotxoak!

HILDAKOAK

Marciana De Vega Santos. Otsailaren 4an.
Pablo Gutierrez Solares. Otsailaren 2an.
Benito Mangas Sanchez. Otsailaren 1ean.
Javier Olarte Untoria. Otsailaren 1ean.
Iñaki Buenaposada Perez. Urtarrilaren 31n.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 8 ACHA-ORBEA
Larunbata, 9 URBISTONDO
Igandea, 10 URBISTONDO
Astelehena, 11 GANDARIAS-URIBE
Asteartea, 12 ORUE
Asteazkena, 13 DE MIGUEL
Osteguna, 14 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

GuraSOS erakundearen deialdia

GuraSOS elkarteak *adOStASUNA* kanpainaren berri emango du otsailaren 10ean, igandean, 12:00etatik aurrera Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Erakundeak kanpainaren bideoa aurkeztuko du, eta erraustegiari buruzko azken berriak eskainiko dituzte. Era berean, otsailaren 23an Donostian egingo den manifestaziorako deialdia egingo du. Horretarako talde argazkia aterako dute.

Lasarte-Oriako Aire Garbiak erakundeak deialdi honekin bat egin du.


Bi erakundeek herritarrak gonbidatzen dituzte ekitaldian parte hartzera.

La Esperanza auzo elkarteko Batzar orokorra


La Esperanza auzo elkarteak urteroko Batzar orokorra egingo du otsailaren 10ean, igandean. Deialdia 10:00etan da, auzo elkartearen lokalean; Basaundi Bailara 8 behea. Ohiz kanpoko deialdia, aldiz, 10:30ean da.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 08




Larunbata, 09




Igandea, 10




Astelehena, 11



Asteartea, 12



Asteazkena, 13



SUDOKUA

	3		9		1		7	2
2					8			1
			3			5		
	6				4			8
	8	5		7		2		
1			6	8				
		7		2	3	9		4
8	2		4				3	
	4				6		2	5

GUTUNAK

GARA eta lan-taldearekin elkartasuna

TOKIKOM

Urtarrilaren 30a egun alai izan behar zuen GARA egunkariko lankideentzat. Hogei urte bete ziren lehen zenbakia argitaratu zutenetik, eta ospatzeko moduko lorpen handia da hori, batez ere komunikabideentzat bizi dugun aro zail honetan.

Aitzitik, poztasun zantzurik ez genuen sumatu GARAREN arduradunek egunkariaren urteurrenean egindako agerraldian: erredakzioa hutsik eta erdi ilunpetan zegoela, datozen urteotan hiru milioi eurotik gora ordaintzera derrigortuta daudela azaldu zuten, zer eta Espainiako justiziak berak legez kanpokotzat jotako EGIN egunkariaren itxieraren ondorioak ordaintzeko.

Lerro xume hauen bidez, TXINTXARRIKI eta Euskal Herri osoko 66 toki komunikabide batzen dituen TOKIKOMek GARARI ezarritako zor horren bidegabekeria publikoki salatu nahi dugu, komunikazio proiektuaren bideragarritasuna kolokan jarritz prentsa askatasuna eta aniztasuna ere kaltetzen dituelako, eta elkartasuna adierazi nahi diogu GARAREN lan-talde osoari. Toki komunikabideetan oso jabe gara prentsa aniztasunak duen garrantziaz, eta haren alde diharduenak ondoan izango gaitu.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Zabaleta auzoan. Bi logela, komuna egongela eta sukaldia. Mikelengatik galdetu. Telefonoa: 603 643 734.

LANA

ESKARIA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko baita garbiketa lanak egiteko ere. Orduka edo interna. 677 76 86 82. Pertsona arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko edo

garbiketa lanak egiteko. 671 79 54 84.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Iñigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA XI. Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa. Danok Kide elkarteak, CIMASUB jaialdiarekin elkarlanean, Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloko edizio berria dakar. Otsailaren 11n, 18an eta 25ean izango dira saioak. Aurten gainera, ikastetxeetako haurrentzako saioa izango da lehen egunean, eta 2018ko jaialdiaren argazki onenen erakusketa izango da. Lasarte-Oria, otsailak 11, 18 eta 25, 19:00etan.

ASTELEHENA 11

Aurkezpena

Luis Martinez Real Sociadadeko Urpeko saileko irakasleak *Zergatik urperatzen gara?* hitzaldia eskainiko du. Ostean, *La Plastikería*, *Anhelo Azul* eta *Euskal Urdina* film laburrak emango dituzte. Manuel Lekuona kulturetxea, 19:00etan.

Erakusketa

Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren barruan, CIMASUB-ean 2018an aurkeztu ziren argazki hobereenen erakusketa abiatuko dute. Lanak otsailaren 26ra arte egongo dira ikusgai. Manuel Lekuonako kafetegian, 17:00etatik 21:00etara.

OSTIRALA 8

USURBIL Antzerkia

Gure Pakea Elkarteko kideen talde batek sortu eta landu duen antzezlanaren emanaldia izango da. Jubilatuz Asteko egitarau barruko ekintza. Sutegiko aretoa, 17:30ean.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA Haur antzerkia

Glu glu produkzioak *Pinotxo* antzezlanaren aurkeztuko du. Carlo Collodiren ipuin klasikoa oinarri hartuta, dantza eta musikaz betetako antzerkia eskainiko dute. Familia guztiari zuzendutako antzerkia da. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona kulturetxea, 17:00etan.

USURBIL Arratsalde pasa soinu-joleekin

Jubilatu Astearren barruan, Usurbil eta inguruko soinu-joleekin arratsalde pasa egingo dute. Sutegi, 17:00etan.

ASTIGARRAGA Kaldereroak

Hungariako kaldereroen konpartsak Astigarragako kaleak alaituko ditu. Ergobiatik irten eta Joseba Barandiaran plazan amaituko dute. Astigarraga, 17:30ean.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA adOSTASUNARI

GuraSOS erakundeak *adOSTASUNARI. La Gestión de los residuos, es cosa de tod@s* aurkeztuko du. Besteak beste, otsailaren 23an Donostian egingo den manifestaziorako deialdia, kanpainaren bideoaren aurkezpena eta talde argazkia egingo dituzte. Manuel Lekuonako hitzaldi aretoa, 12:00etan.

DONOSTIA Antzerkia

Mikel Bermejo herritarrak Aitziber Garmendiarekin batera *Bizi(o)lagunak* umorezko saioa eskainiko du. XXVIII Poltsiko Antzerki jaialdi barruko ekintza da. Intxaurrendoko Aitona-Amonen Etxea, 18:30ean.

URNIETA Antzerkia

Donostiako Teatro Estudio taldeak Elena Belmonteren *Baile de huesos* komedia eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro. Sarobe gunea, 19:00etan.

DONOSTIA Dantza

Nire, zure, gure Verdini: 25 urte ikuskizuna eskainiko dute Verdini Dantza Taldeko kideek. Sarrerak, 6,30 eurotik 12 eurora. Victoria Eugenia antzokian, 19:30ean.

ASTEARTEA 12

ASTIGARRAGA Irakurketa Kluba

Jon Miranderen *Haur besoetakoa* liburua aztertuko dute. Isabel Etxeberriak gidatuko du saioa. Liburutegia, 19:30ean.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Proiektzio digitala

Andrea Bocelli. A legend of beauty ikuskizuna eskainiko da proiektzio digitalen atalean. Ikuskizunak Andrea Bocelli eta opera eta pop musikako nazioarteko abeslariak batzen ditu, baita izotz-patinatzaile ospetsuak ere. Sarrera aurretik 7,5 euro; egunean 9 euro.

Manuel Lekuona kulturetxea, 19:00etan.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Liburu aurkezpena

Lasarte-Oriaren eraketaren urteurrena ospatzeko, Jose Luis Navarroren liburua aurkeztuko dute: *Retazos III*. Manuel Lekuona kulturetxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Udalerrriaren urteurrena ospatzeko, *Nébel Duoa* ikuskizuna emango dute. Brigitarren komentuan, 19:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Jainkoak ez dit barkatzen (JBGA)
Ostirala: 22:00.

Spiderman, un nuevo universo
Igandea: 17:00.

El vicio del poder
Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Spiderman, un nuevo universo
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

The old man & the gun
Larunbata: 19:30.
Astelena: 22:00.

USURBIL

URBIL

María, reina de Escocia
Ostirala: 16:30, 19:15, 22:00, 00:50.

Larunbata: 16:30, 19:15, 22:00, 00:50.
Igandea: 16:30, 19:15, 22:00.

La LEGO Película 2
Ostirala: 15:55, 17:10, 18:10, 19:30.
Larunbata: 15:55, 17:10, 18:10, 19:30.
Igandea: 15:55, 17:10, 18:10, 19:30.

Jefa por accidente
Ostirala: 20:15, 22:30, 00:50.
Larunbata: 20:15, 22:30, 00:50.
Igandea: 20:15, 22:30.

The Prodigy
Ostirala: 20:25, 22:40, 00:55.
Larunbata: 20:25, 22:40, 00:55.
Igandea: 20:25, 22:40.

Bajo el mismo techo
Ostirala: 18:10, 20:30,

22:40, 00:15.
Larunbata: 18:10, 20:30, 22:40, 00:15.
Igandea: 18:10, 20:30, 22:40.

Green Book
Ostirala: 15:55, 18:45, 21:30.
Larunbata: 15:55, 18:45, 21:30.
Igandea: 15:55, 18:45, 21:30.

Creed II: La leyenda de Rocky
Ostirala: 19:15, 22:00, 00:40.
Larunbata: 19:15, 22:00, 00:45.
Igandea: 19:15, 22:00.

Familia al instante
Ostirala: 16:45, 19:15.
Larunbata: 16:45, 19:15.
Igandea: 16:45, 19:15.

Glass (Cristal)
Ostirala: 22:15, 00:35

Larunbata: 22:15, 00:35.
Igandea: 22:15.

La favorita
Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.

Astérix: El secreto de la poción mágica
Ostirala: 16:10.
Larunbata: 16:10.
Igandea: 16:10.

Bohemian Rhapsody
Ostirala: 21:45, 00:40.
Larunbata: 21:45, 00:40.
Igandea: 21:45.

Dragon Ball Super: Broly
Ostirala: 15:50 (eusk.), 18:00.
Larunbata: 15:50 (eusk.), 18:00.
Igandea: 15:50 (eusk.), 18:00.

El regreso de Mary Poppins
Ostirala: 16:30.
Larunbata: 16:30.
Igandea: 16:30.



LABURPENA

Jainkoak ez dit barkatzen (JBGA)

Zuzendaria eta gidolaria: Josu Martínez. **Herr:** Euskal Herria (2018). **Muntaia:** Raul Lopez. **Musika:** Joseerra Senperena. **Animazioa:** Adur Larrea. **Ekoizpen exekutiboa:** Ane Antofanizas, Mireia Gabilondo eta Elena Gozalo. **Ekoizpena:** Mikel Arrendondo eta Katti Pochelu. **Soinu nahasketak:** Joselu Rubio eta Haritz Lete. **Arte zuzendaritza:** Izaskun Urkijo. **Iraupena:** 60 minutu.

XX. mendeko lekukotza sinestezina

Josu Martínez EHuko Ikus-entzunezko Komunikazio saileko ikerlaria da. *Itsasoaren Alaba* (2009), *Sagarren denbora* (2010), *Prohibido recordar* (2010) eta *Gure Sor Lekuaren bila* (2015) dokumentalak zuzendu ditu. 2018an, *Ama* film laburra zuzendu zuen.

Oraingoan, Euskal Herriko pertsonaia berezi baten lekukotza eskaintzen du *Jainkoak ez dit barkatzen* dokumentalean. Martin Ugalde idazle eta euskaltzalearen grabaketetan oinarrituta Lezo Urreiztiaren istorio sinestezina ezagutarazten du, protagonistaren ahotsaren bitartez. 1975. eta 1978.

urteen artean biek izandako solasaldien grabaketa hauetan milaka abenturari buruz hitz egiten du.

Baina nor da Lezo Urreiztieta? XVI. mendeko pirata bat zen, 1907. urtean jaioa. Bere bizitza arriskuan jarri, eta ehunka pertsona salbatu zuen; Euskal Herriaren askatasuna negoziatu zuen atzerriar gobernuekin; Bilbon armar betetako 17 itsasontzi sartu zituen Gerra Zibilean; Franco akabatzearen egon zen...

Dokumentala jatorrizko hizkuntzan eskainiko dute, azpidatizkiekin.

USURBIL

Ugartondo

161.000€tik
aurrera



ETXEBIZITZA TASATUAK garaje eta trastelekua barne

Sukaldea guztiz hornitua eta gela guztietan horma-armairuak.
Zozketa gabe. Ez utzi aukera ezin hobe hau pasatzen!

INFORMA
ZAITEZ

943 579 366
619 508 392

Kale Nagusia 10,
20710 USURBIL

www.jaureg.com
usurbil@jaureg.com



Donostiatik 15 minutura. A mailako eraginkortasun energetikoa. Ingurune naturala.